



Argazki Press

## EGOERA ETA HELBURUAK

EH BILDUKook kulturadun emakume eta gizonez osatutako herria nahi dugu, herritar sortzaile, kritiko, burujabe eta librez osatutakoa eta sinetsita gaude kultura helburu hori lortzeko bitarteko paregabea dela.

Kultura eskubide unibertsala da, pertsona orori bermatu beharrekoa. Bai eta herri orori ere.

Kultura pertsonaren garapen integralerako ezinbestekoa da eta horrenbestez, herri baten ongizatearen parte. Eta kohesiorako zein integrazioerako tresna naturala, hurrengo urteotako erronka izango dena, migrazioak, elkarbizitza eta aldaketa sozialak nagusi izango diren testuinguruan.

Lehenik eta behin, EH BILDUK urte luzetan Euskal Herrian kulturgintzan ari diren emakume eta gizonen lana goraipatu nahi du eta era berean, kultur eragile guzti horien bozgorailu eta bidelagun izan nahi du.

EH BILDUK, Euskal Herrian kulturgintzan ari diren jarduna laguntzeaz gain, euskal kulturgintzaren aldeko lana hobetsiko du, euskara legez, euskal kultura ez baitago normalizatua.

Bat egiten dugu XXI. Mendearen hasieratik ehunkada kultur eragilek hainbat gogoeta bilgunetan adostu duten kultur sorkuntzaren egungo egoeraren diagnostikoarekin.

Bat egiten dugu gogoeta foro horietan kulturak bizi duen egoera hobetzeko proposatu dituzten neurriekin eta horiei, EH BILDUK legez gure ekarpenak egin gura dizkiegu.

EH BILDUKoon aburuz, Euskal Herrian kulturarentzako estrategikoa zer den kultur sistema osatzen dugun eragile guztion artean eztabaidatu, adostu eta gauzatu behar dugu. Kulturaren ekosistema honakook osatzen dugu:

- Herri- mugimenduak
- Sortzaileak
- Erakunde publikoak
- Industria (kulturan profesionalki ari direnak)
- Komunikabideak
- Hezkuntza arautua/ ez arautua
- Kultur-zaleak

Datozen urteotako kultur politikak ekosistema osatzen dugunon artean diseinatzeko bilguneak sortu behar ditugula uste dugu. Bilgune horietan herri honetan kulturgintzan ari diren eragile guztiek izan beharko lukete parte hartzeko aukera, inor baztertu gabe.

Bilgune hori **Euskal Kulturaren Zentroa** izan daiteke.

Euskal Kulturaren Zentro horren izaera eta funtzioak kultur ekosistema osatzen dugun eragileon artean proposatu, eztabaidatu eta adostuko genituzke.

EH BILDUK honako proposamenak egingo lituzke eragile guztiok batuko gintuzkeen foro horretan:

## NEURRIAK

### A GABEZIAK

Euskal kulturaren ekosistema osatzen dugun eragileok XXI. Mendearen hasieratik burututako gogoeta saioetan ondorioztatu dugunez, lau gabezia bete behar ditugu:

**Sormena sustatu.** Herritarren heziketa integralerako, sormena hezkuntza arautuan zein ez arautuan era iraunkor eta sistematikoan landu behar dugu.

**Plazak bete:** Bertoko kultur sorkuntza erakusteko behar adina espazio fisiko zein digital erabili behar ditugu.

**Ikusgarri egin, herritar oren eskura jarri:** Herritar orok, Euskal Herriko sortzaileen lanen berri izan dezan, komunikaziorako, hedapenerako, zabalkunderako beharrezko bitartekoak behar ditugu..

**Transmisioa bermatu:** Hezkuntza arautuan zein ez arautuan, sormena lantzearekin batera, euskal kultur sorkuntza transmititzea bermatu behar dugu

### B KULTURGINTZA BABESTU

Babesa behar du kulturgintzak Euskal Herrian, herritarren, herritar mugimenduon eta erakunde publikoen babesa.

Erakunde publikoei dagokie babes juridiko, politiko eta ekonomikoa bermatzea.

Euskal Herrian kulturgintzan ari direnek proposatuko neurriak geure egin eta horiei geure ekarpen xumea gehitu nahi diegu.

### B1 BABES JURIDIKOA

Herri guztietan, bertako kultur eragileez osatutako Kulturbilguneak sortzeko aukera legala sortzea.

Legez, bertoko hedabideek bertoko kulturaren berri zabaltzeko kuotak bete behar izatea. Kuota horiek guztion artean adostea.

Ikusgarritasuna, hedapena, zabalkundea bermatzeko: Legez, bertoko programazioan bertoko kulturaren berri zabaltzeko kuotak bete behar izatea. Kuota horiek guztion artean adostea.

Sortzailearen estatutua sortzea bere eskubideak babesteko eta kontratazioak erregulatzeko.

Sortzaileentzako aproposak diren epigrafe berriak sortzea jarduera ekonomikoak erregulatzeko. Lanbide artistikoaren aktibitate anitzak kontutan hartzen dituen epigrafe malguagoa izan beharko litzateke.

Kultura herritar oren eskura egongo dela bermatuko duen legea onartzea.

Ikus entzuneko legea garatzea.

## B2 BABES EKONOMIKOA

Gizarte-segurantzan erregimen berezia sortzea.

%21eko BEZ zergak dakarkigun gehiegizko gastuari aurre egin ahal izateko, hobariak ezartzea, beherapen batzuekin konpentsatzea.

Kulturari zuzendutako diru funtsaren proiektua abiaraztea.

Aurrekontu eta kultur politiken diseinuan ardura partekatutik abiatutako elkarlanak praktikan jartzea. Kultur ekosistemaren parte garen eragileon parte hartze zuzena.

Gutxienez, aurrekontu orokorren %1a sorkuntza eta programazioari egokitzea.

Kultur proiektuetan inbertsioa egiteko fondoa sortzea.

Lanbiderekin hitzarmena:

- Kultur eragileei zuzenduriko laguntzak beraien programak diseinatzeko.
- Formakuntza berezia eskaintzea kulturgintza arloan.

Etengabeko ikerketa: Kulturaren kalitatea hobetzeko, Kultur sorkuntzari, zaletasunari, produkzioari, kontsumoari eta transmisioari buruzko etengabeko ikerketa bermatzeko bitarteko ekonomikoak bideratzea.

## B3 SORMENARI BABESA

Hezkuntza arautuan zein ez arautuan sormena ahalbidetzen duten baldintzak eta esperientziak sustatzea: Musikene, Dantzerti, Museoak, Musika Eskolak, EOS-OSE...

Hezkuntza garaikidea lantzen duten eragile eta ekimenen kartografia egitea.

Kulturaren transmisioa bermatzea: Euskal Herrian egin den eta egiten den sorkuntza eta kultura eskola curriculum-ean era praktikoa eta parte-hartzaileago batean txertatzea bertoko profesionalen laguntzaz.

Sortzaile, kultur eragile, ikusle eta hezitzaileentzat formakuntza espezializatua eskaintzea.

Herri eta hirietan Hezkuntza Mahaiak sustatzea (tokian tokiko kultur egoerak curriculumean txertatzeko).

Kulturan jarduteko Enplegurako plana sortzea.

## B4 EKOIZPEN ETA ZERBITZUEI BABESA

Euskal Herriko azpiegituren kudeaketa eta erabilera sortzailea proposatzea. Horretarako azpiegiturak eta beharrak mapeatzea.

Kudeaketa publikoan eragile profesionalen ardura eta parte hartze iraunkorra bermatzea.

Kultur-klik zerbitzua berrikusi, zabaldu eta hobetzea.

## C KULTURA FEMINISMOTIK

Emakume sortzaileen lanen aldeko neurri batzuk proposatzen ditugu:

Plazetan: Kultur sorkuntzak erakusteko espazio fisikoetan zein digitaletan emakume sortzaileen lanak %50 betetzea bermatu behar dugu.

Ikusgarritasuna: Emakume sortzaileen lanei gizonen lanei besteko denbora, presentzia, garrantzia, oihartzuna eta hedapena eskainiko zaiela bermatu behar dugu.

Transmisioa hezkuntzan: Euskal kultur sorkuntzaren historian emakumeen sorkuntzak ahanzturatik azaleratu behar ditugu eta gaur egun sorkuntzan ari diren emakumeen lanei berebiziko garrantzia eman. Horretarako, kurrikulumean emakume sortzaileen lanak jorratzeko atal berezia txertatuko dugu.

## D ONDAREA

### D1 ONDARE MATERIALA

Gutxienez, obra publikoari zuzendutako aurrekontuaren %1a, Euskal kultura ondarea kontserbatzeko eta haren garrantzia nabarmentzeko izango da.

Arriskuan dauden aztarnategiak babestuko dira.

Jendeari zabalduta dauden zentro arkeologikoak egoki ipintzen eta haien berri zabaltzen ahalegin berezia egin.

Katalogoak eguneratu, aztarnategiak txukundu, seinalizatu eta informazio-panelak ipini.

Sakabanatua dagoen informazioa zentralizatu.

Indusketa baimenak eta diru-laguntzak: irizpideak finkatu, kontrolak, kalitate neurgailuak, erantzukizunak, emaitzak...

Prehistoriako Arkeologia Museo Nazionala proiektua aztertu.

Goi erdi aroko arkeologia azterketak bultzatu.

Arkeologia Industrialari dagokionez industriren edo azpiegituren hondakinak aztertu, atondu eta ikusgai ipini. Geratzen diren saltoki zahar bakanak babestu: botikak, dendak, tabernak eta Hutsik dauden eraikin historikoak (jauregiak, geltoki zaharrak) birgaitu eta erabili.

Zaharberritzeari garrantzia handiagoa eman, artelan eta eraikin asko egoera txarrean aurkitzen baita.

Didaktikoagoak bihurtu gure museoak.

Euskal arteak presentzia eta promozio handiagoa izatea museotan.

Euskal museoak berrantolatzerakoan ikuspegi nazionalari garrantzia ematea beharrezkoa da.

Sakabanatuta dauden materialak artxibatzeko eta katalogatzeko lana indartu.

Dauden artxiboak zaindu eta ordenatu.

Mikrofilmatze eta digitalizatzeko lanak indartu.

Internet kontsultatzeko moduan ipini materialak.

Ikertzaileen eta noizbehinkako erabiltzaileen esku jarri materialak.

Euskal Herritik kanpoko artxiboetan (Simancas, Salamanca...) dagoen materiala berreskuratu.

Artxibo pribatuak lagundu, denen eskura jarritz.

Liburutegi publikoetan euskarri berrietara egokitutako eskaintza zabaldu e-liburutegiaren bitartez.

Liburutegien egituraketa eta saretzea sustatu.

Euskal Herriko Liburutegi Nazionalaren proiektua abiatu.

## ONDARE INMATERIALA

Euskara da gure kultura ondare nagusia. Euskara, Europako hizkuntza zaharrena izaki, eta agian substratu hizkuntza Europako parte batean, bideak irekiko dira UNESCOk Humanitatearen Ondare izenda dezan. Horretarako:

- Euskararen prehistoria eta historia ezagutzeko ikerketak bultzatu. Antzinako euskararen nolakoa, hedadura, beste hizkuntza batzuekin balizko harremanak eta abar ezagutzeko ikerketak lagundu.
- Aztarnak eta agiriak jaso, aztertu eta erabiltzaileen eskura ipini.

Toponimia jaso, aztertu eta eskura ipini. Horretarako:

- Datu-base erraldoi bat Interneterako prestatzea, non jasotako toponimo guztiak agertuko diren argibidez ondo hornituta: non dagoen, zein elementu geografiko den, izenaren eboluzioa, etimologia (jakin daitekeenean), etab.
- Ondare legean Toponimia eta Onomastika Batzorde Instituzionala jaso eta sortu.

Memoria kolektiboari dagokionean, azken urteetan hainbat talde dabil buru-belarri memoria kolektiboa jasotzen arlo askotan: euskara, toponimia, etnografia (antzinako ohiturak, erritoak, kantuak, langintzak...), gerra zibila, emakumearen historia eta abar. Besteak beste, EKE Iparraldean, Labayru, Eusko Ikaskuntza Euskal Herri guztian, Ahotsak Euskadiko Erkidego Autonomoan, eta Euskal Kultur eta Labrit Nafarroan. Bestalde, bada ahozkotasanari zuzendutako erakunde-etxe bat ere: Mintzola. Eta hor daude Bertsolarien Elkarte, Xenpelar dokumentazio zentroa, Dantzazaleen Elkarte, Trikitalarien Elkarte, eta abar.

Garrantzi handiko arloa da, iragana ondo ezagutzea ezinbestekoa baita geroari aurre egiteko. Mundu oso ezberdina bizitako azken belaunaldia hiltzen ari dela ezin da ahaztu. Instituzioen zeregina izango da eragile ezberdinekin harremanetan jartzea, koordina daitezen saiatzea eta baliabidez hornitzea.

EH BILDUK proposatutako gogoeta, neurri eta ekarpen hauek guztiak kultur sistema osatzen dugun eragile guztion artean eztabaidatu eta adostu beharrekoak dira. Jaurlaritza, erakunde publikoa den heinean, kultur ekosistemaren beste eragile bat da eta bere ezaugarriei dagozkion ekarpenak ekosistema osatzen duten gainontzeko eragileekin eztabaidatu eta adostu behar ditu. EH BILDUK bide hori hartuko du euskal herritarrentzako kulturalki onuragarriena datekeenaren defentsan.